

Azpeitiko kultur komunitate artikulatuaren ibilbidea

Azpeitiko kultur taldeen eta udalaren 1998 aurreko eta ondorengo jardueraz gain,

1998. [Uztarria Kultur Koordinakunde](#)aren sorrera. Arloak: euskara, komunikazioa eta kultura. Kideak: arlo horietako taldeak eta norbanakoak.

1998. San Agustin eliza kultur erabilerarako izateko erabakia udalak.

1999. Kultura arloan, Uztarriak kultur etxearen (Basabazal jauregia) proposamena. Horrez gain, kultur agenda hilerro, Kulturaldia urtero...

2005. Soreasu berriaren proiektua udalak. Soreasun kafe antzokia sortzeko proposamena Uztarriak (2003tik zeukan herrian kulturgune bat irekitzeko asmoa).

2006. [Kultur Mahaia](#)aren sorrera, otsailean. Kideak: kultur taldeak, udal taldeak eta norbanakoak. Helburua: herri gisa pentsatzea eta aritzea.

2007. Kultur Mahaia martxa iraunkorrean: funtzionamendua (barne araudiak, tresna juridiko gisa elkarteak —2009—, Talde Eragilea, bazkideak), eta lan arloak (azpiegiturak, komunikazioa, programazio irizpideak).

2008. Uztarria Kultur Koordinakundearen desegitea. Adibidez, kultur arloan Kultur Mahaia izateko bilgune nagusi. Geroztik Uztarria, komunikazio taldea. (2020tik, Urolako Komunikazio Taldea kooperatiban).

2009. Kultur Mahaia herriko kultur programazioaren irizpideak onartu zituen. Asmoa: taldeen eta eragileen lankidetzarekin orekak bilatzea.

2009. [Lapikue.net](#) kultur webgunearen sorrera, abenduan. 2012ko ekainean, Kultur Mahaia [Uztarria.eus/kultura](#)-n biltzen hasi zen kultur berriak, *Uztarria* eta *Urola Kostako Hitza*-rekin elkarlanean.

2010. Eskuko kultur agendaren 1. zenbakia, urrian. Hilerokoa. Sei urteko ibilbidea.

2010. Sanagustin kulturgunearen irekiera udalak, abenduan. Aurretik, Kultur Mahaia hainbat ekarpen gauzatuak.

2010. Sanagustin osatzeko proposamena onartu zen Kultur Mahaiko batzarrean, abenduan, eta udalari deialdi publikoa ateratzeko eskatu zion. Udalak onartu egin zuen deialdia ateratzea.

2011. Soreasu antzokiaren irekiera udalak, gunea berrituta erabat.

2011. Sanagustin osatuaren irekiera, uztailaren 22an. Udal lehiaketa aterata, Kultur Mahaiak kudeatuta, Sanagustin kooperatiba sortuta (geroago, *Kulturaz* izenpean). Udalarekin kontratua.

2012. *Gartxot* ikuskizuna antolatu zuen kultur komunitateak, herri dinamika helburu. 120 lagunek hartu zuten parte. Geroztik, antzeko beste ekinbide batzuk; esate baterako, 2014an *Badator Olentzero*, 80 parte hartzaile baino gehiagorekin, edota musika arlokoen emanaldi jendetsuak (banda, musika eskola, abesbatza...).

2012. Kultur komunitatearen blog 'korporatiboaren' sorrera, oinarritzko informazioa jasoz. 2022tik, Uztarria.eus/Bereziak/Azpeitiko-kultur-komunitatea-n.

2012. Kultur Mahaiak sormenari eta transmisioari buruzko gogoeta eta asmoak.

2012. Kultur bonoaren sorrera Kulturazek.

2014. Soreasu antzokiaren kudeaketa hartu zuen Kulturazek, udal lehiaketa aterata. Udalarekin kontratua.

2015. Azpeitiko kultur eremuaren argazkia azterketa Kultur Mahaiak eta Kulturazek.

2016. Sanagustinen inpaktu kultural, sozial eta ekonomikoaren *Kulturmetria* azterketa Kultiba eta UPR enpresek. 2021ean ere bai, Kultibak. Eragin handiko proiektutzat jotzen da.

2016. Dinamoaren sormen gunearen lehen pausoak Soreasuko gunean, hitzaren eremuarekin. Kultur Mahaiak eta Kulturazek kudeatuta. 2019tik jarduera osatuagoa (eremuak: hitza, irudia, gorputza, soinua). Dinamoaren irekiera ofiziala, 2021ean.

2021. Udalak (aho batez onartuta udalbatzarrean) eta Kulturaz kooperatibak lankidetzat hitzarmena, Sanagustin, Soreasu eta Dinamoaren ustiaketarako.

2021. Mahaiak tresna juridiko gisa 2009an sortutako Kulturzale elkartearen desegitearen erabakia, bazkideen ezohiko batzarrean, uztailean.

2021. Sanagustin kulturgunearen 10. urteurrena. Herri Batzordearen sorrera ospakizunerako. Kideak: Kultur Mahaia, Kulturaz, udal taldeak eta norbanakoak.

2022. Kultur Mahaiaren batzarra, birmoldaketa prozesuari bukaera emateko. Oinarrizko gauzei (ber)rekiteko erabakiak: kultur taldeekin etengabeko harremana, formakuntza, komunikazioa, komunitatea zabaldu, Kulturazeko lau eremuetan erabakiguneak ireki, edota herri dinamikak sustatzeko ekinbideak.

.....

Gaur egun Kulturazek dauzka: hiru kultur espazioren kudeaketa, urtean 200en bat ekitaldi, proiektu ugari, askotariko harremanak, 25 bat langile, milioi eta erdi euroko aurrekontua, herriko elkarte eta kultur taldeen beharrekiko laguntza, ostalaritza zerbitzua, kanpo zerbitzuak...

.....

2006-2007tik Azpeitiko kultur taldeek eta beste eragile batzuek, kultur komunitatea artikulatu (Kultur Mahaia), herri ikuspegia izan eta pauso estrategikoak eman izan dituzte.

2011n, Sanagustin kulturguneko osatuaren proiektuaren egilea izan zen Kultur Mahaia, eta haren estilo liburua ere egin zuen.

Horregatik, eta hartutako neurrien ondorioz (bazkidetza...). Kultur Mahaia izan da Kulturaz kooperatibaren proiektuaren zaintzaile eta berme nagusi.

Kulturaz kooperatibako bazkidetza aipatu dugula, honela dago eratuta:

- Bazkide erabiltzaileak: Kultur Mahaiko talde bazkideak. Botoen %49.
- Bazkide langileak: Kulturaz kooperatibako langile bazkideak. %18.
- Bazkide kolaboratzaileak: norbanako bazkideak. %32,99.
- Bazkide laguntzaileak: entitate bazkideak (ez dago inor). %0,1.

Horretaz guztiaz gain, herriko kultur taldeek euren arloan eguneroko lanean jarraitu dute, eta udalak ere gauzatu ditu bere kultur ekinbideak. Kultur arloko norbanakoen emana ere garrantzitsua da.